



Udal Informatika Zentroa  
Centro Informático Municipal



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Txomin Agirre. 6

Tel. 943481800 - Faxe 943481805

20018 Donostia / San Sebastián

Udal Informatika Zentroa  
Centro Informático Municipal

**UDAL WEBGUNEA GAUR EGUNGO  
DOMEINUTIK WWW.DONOSTIA.EUS  
DOMEINURA ALDATZEARREN  
EGOKITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA  
IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO  
PROZESUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN  
AGIRIA**

**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES  
TÉCNICAS A REGIR EN LA  
CONTRATACIÓN MEDIANTE  
PROCEDIMIENTO ABIERTO, DEL  
SERVICIO DE ADAPTACIÓN DE LA WEB  
MUNICIPAL PARA PASAR DEL DOMINIO  
ACTUAL AL DOMINIO  
WWW.DONOSTIA.EUS**

Kanpoko informatika zerbitzuak kontratatu beharra dago udal sarea egokitu eta [www.donostia.org](http://www.donostia.org) domeinutik [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) domeinura aldatzeko.

Se precisa contratar los servicios informáticos externos necesarios para realizar la adaptación de la web municipal para pasar del dominio actual [www.donostia.org](http://www.donostia.org) al nuevo [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus).

Kanpo kontrataziora jotzeko arrazoia da UIZn ez dagoela zerbitzu hori emateko behar beste giza baliabide.

Se debe acudir a la contratación externa debido a la falta de recurso humanos suficientes en el CIM, para la realización del servicio.

Migrazioa bi eremu hauetan egingo da: azpiegitura sistema eta garapena.

Esta migración está enfocada en dos ámbitos: sistemas-infraestructuras y desarrollo.

## KONTRATUAREN XEDEA

## OBJETO DEL CONTRATO

### 1. erloa: Sistemak – Azpiegiturak

### Lote 1: Sistemas-Infraestructuras

Kontratu honen xedea da sistemak ingurune berrira egokitzeko zerbitzua ematea.

El objeto de este contrato es el servicio de adaptación de los sistemas al nuevo entorno.

Donostiako Udalaren Udal Informatika Zentroak honako azpiegitura hau dauka Java plataforman:

El Centro Informático Municipal del Ayuntamiento de Donostia - San Sebastián cuenta con la siguiente infraestructura en la plataforma Java:

- ✓ Framework J2EE
- ✓ Liferay atarien kudeatzailea
- ✓ Apache, web zerbitzari gisa

- ✓ Framework J2EE
- ✓ Gestor de portales Liferay
- ✓ Apache como servidor web





- ✓ Jboss aplikazio zerbitzariak
- ✓ Liferay eta gainerako java aplikazioen segurtasuna CAS bidez txertatzea.
- ✓ Springen Framework, aplikazioak garatzeko
- ✓ SOA arkitektura
- ✓ Oracle, Db2, Mysql, Postgresql datu basea
- ✓ Swing-ean oinarritutako mahaigaineko j2ee aplikazioak
- ✓ MVC Spring web aplikazioak
- ✓ Mugikorretarako aplikazioak, bai Android natiboak bai webak.
- ✓ Linux sistema eragilea zerbitzarietan
- ✓ XML/XSLT
- ✓ Apache Maven, proiektuak eraikitzeke tresna gisa.

- ✓ Servidores de aplicación jboss
- ✓ Integración de la seguridad tanto liferay como resto de aplicaciones java mediante CAS
- ✓ Framework de Spring para desarrollo de aplicaciones
- ✓ Arquitectura SOA
- ✓ Bases de datos Oracle, Db2, Mysql, Postgresql
- ✓ Aplicaciones j2ee de escritorio basado en Swing
- ✓ Aplicaciones Spring web MVC
- ✓ Aplicaciones para móviles tanto nativas Android como web
- ✓ Sistema operativo Linux en servidores
- ✓ XML/XSLT
- ✓ Apache Maven como herramienta de construcción de proyectos.

Jadanik adierazi den bezala, lizitazio honen xedea da [www.donostia.org](http://www.donostia.org) gaur egungo domeinua [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) domeinu berrira migratzeko sistemak egokitzeko zerbitzua ematea, adierazitako ingurunean. Hauexek izango dira eginkizunak:

- ✓ Liferay eta Java web azpiegiturak, hau da, Interneteko web aplikazioko bi inguruneak egokitzea, Apache, Jboss eta beste zerbitzarietan domeinua aldatzeko.
- ✓ Klase komunak egokitzea probako, preprodukzioko eta produkzioko inguruneetan.
- ✓ CAS autentifikazio sistema egokitzea, behin-behinean bi ziurtagiriak onar ditzan.

Como se ha expuesto, el objeto de esta licitación es obtener los servicios para la adaptación de los sistemas para la migración del dominio actual [www.donostia.org](http://www.donostia.org) al nuevo [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus), en el entorno descrito. Dichas tareas consistirán en:

- ✓ Adaptación de las infraestructuras Liferay, Java web, los dos entornos de aplicaciones web de internet para cambiar el dominio a nivel de servidores Apache, Jboss...
- ✓ Adaptar clases comunes tanto en los entornos de pruebas, pre-producción y producción.
- ✓ Adaptar el sistema de autenticación CAS, para que provisionalmente acepte



**Udal Informatika Zentroa**  
**Centro Informático Municipal**



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Udal Informatika Zentroa  
Centro Informático Municipal

Txomin Agirre, 6

Tel. 943481800 - Faxa 943481805

20018 Donostia / San Sebastián

- ✓ Garapenari euskarria ematea, bere kodeari eragiten dioten aldaketak egin ditzan, arazteko.
- ✓ Produkzioan sor daitezkeen arazoak konpontzea.
- ✓ Lanen dokumentuak sortzea korporazio wikian.

dos certificados.

- ✓ Dar soporte a Desarrollo para los cambios que afecten dentro de su código para su depuración.
- ✓ Resolución de problemas que puedan producirse en Producción.
- ✓ Generar la documentación de los trabajos en la wiki corporativa.

## 2. erloa: Garapena

Udalaren webguneak domeinu asko ditu, "donostia.es", "sansebastian.es", "sansebastian.org", baina domeinu nagusia "donostia.org"; hori dela eta, webgunea domeinu horren erreferentziaz beteta dago.

"donostia.org" domeinu nagusia "donostia.eus" domeinura migratu ahal izateko, domeinu nagusiaren erreferentzia guztiak ordezkatu behar dira.

-Eduki kudeatzaileak:

Udal webgunea 2 CMSk eta Liferay eta Lotus Notes aplikazioek osatzen dute. CMSak kudeatzen dituen domeinu nagusiaren gaineko erreferentzia gehienak dinamikoki kalkulatzen dira, baina konfigurazioko hainbat atal eta dokumentutan eskuz aldatu behar da domeinuaren izena.

Webaren diseinua ere sartzan da CMS horietan, eta diseinuaren barruan badira ordezkatu beharreko domeinuaren aipamenak.

-Web aplikazioak, neurriak.

Eduki kudeatzaileez gain, badira beste web aplikazio batzuk ere, argitaratu beharreko informazioaren neurriak garatuak (lan eskaintza, online izapideak, Uda...). 60 aplikaziotan, iturburu kodea erreparatu behar da, eta domeinuaren izena aldatu.

-Edukiak aldatzea.

"donostia.org" web atariak 180.500 bat html eduki ditu. Eduki horiek denak begiratu behar dira, eta aipamen eta lotura gisa

## Lote 2: Desarrollo

La página web municipal, tiene muchos dominios, "donostia.es", "sansebastian.es", "sansebastian.org", pero el dominio principal es "donostia.org", por esta razón la pagina web esta repleta de referencias a dicho dominio.

Para poder migrar el dominio principal de "donostia.org" a "donostia.eus" hay que reemplazar todas las referencias al dominio principal.

-Gestores de contenidos:

La web municipal esta compuesta por 2 CMSs, Liferay y Lotus Notes. La mayoría de las referencias al dominio principal que gestionas estos CMSs, se calculan dinámicamente, pero existen varias secciones y documentos de configuración, en los que hay que modificar el nombre de dominio, manualmente.

El diseño de la web, tambien se encuentra en estos CMSs y dentro del diseño, hay menciones al dominio que hay que reemplazar.

-Aplicaciones web a medida.

Además de los gestores de contenido, existen aplicaciones web, desarrolladas a medida de la información a publicar (Oferta de empleo, Tramitación Online, Uda,...). 60 aplicaciones, en las que hay que repasar el código fuente y reemplazar el nombre del dominio.

-Modificación de contenidos.

El portal web "donostia.org", contiene alrededor de 180.500 contenidos html. Hay



**Udal Informatika Zentroa**  
**Centro Informático Municipal**



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Udal Informatika Zentroa  
Centro Informático Municipal

Txomin Agirre. 6

Tel. 943481800 - Faxe 943481805

20018 Donostia / San Sebastián

agertzen diren "donostia.org" guztien ordeztu "donostia.eus" jarri.

Aldaketa horiek egiteko, pauso hauek eman behar dira:

- Eduki kudeatzaileen konfigurazio kodea eta dokumentuak aldatu.
- Beharrezkoak diren diseinu elementu guztiak aldatu. CSS, diseinu plantillak eta abar.
- Neurrira egindako aplikazioen iturburu kodea aldatu, bai Lotus Notesen eta bai Liferay ingurunean (java).
- Edukiak automatikoki ordezkatzeko prozesuak programatu.
- Eduki guztiak banan-banan begiratu, prozesu guztiak ondo ordezkatu direla egiaztatzeko.

Kontuan izanda zerbitzuaren ezaugarri teknikoak, lanak esleipedun enpresaren bulegoetan egingo dira, edo, UIZek egokia baderitzo, UIZen bulegoetan bertan egingo dira.

Enpresak eskainiko du zerbitzua UIZen beharrei egokitutako ordutegian.

Esleipendunak enpresako pertsona bat izendatuko du UIZeko arduradunarekin koordinazio lanak egiteko.

## PROIEKTUAREN IRAUPENA

Proiektuaren iraupena baldintza ekonomiko-administratiboen agirian, eranskineko laukiaren G atalean, adierazitakoa da.

que repasar todos estos contenidos y reemplazar, las menciones y los enlaces a "donostia.org", por "donostia.org".

Para realizar estas modificaciones, se necesita:

- Modificar el código y los documentos de configuración de los Gestores de contenido.
- Modificar los elementos de diseño necesarios. CSS, Plantillas de diseño, etc...
- Modificar el código fuente de las aplicaciones realizadas a medida, tanto en Lotus Notes como en entorno Liferay (java).
- Programar procesos de reemplazo automático de contenidos.
- Repasar de uno en uno todos los contenidos, para verificar el correcto reemplazo de todos los procesos.

Dadas las características técnicas del servicio a realizar las tareas se ejecutarán en las dependencias de la empresa adjudicataria o del propio CIM, si éste así lo estimare conveniente.

El horario en el que la empresa habrá de prestar el servicio se ajustará a las necesidades del CIM.

La adjudicataria nombrará una persona de la empresa, que será quien realizará las tareas de coordinación del servicio ante la persona responsable del CIM.

## DURACIÓN DEL PROYECTO

La duración del proyecto será la indicada en el apartado G) del cuadro Anexo de los pliegos de condiciones económico administrativas.



**Udal Informatika Zentroa**  
**Centro Informático Municipal**



Txomin Agirre. 6

Tel. 943481800 - Faxa 943481805

20018 Donostia / San Sebastián

## PREZIOA

Enpresak proiektuaren orduko prezioa eskaini beharko du, sorta bakoitzean galdatutako kategoria profesionalari dagokiona, honela banakatuta: prezio garbia gehi BEZa.

Enpresa adjudikazioduna etengabeko ebaluazioaren pean egongo da, eta irizpide hauek hartuko dira kontuan ebaluazio horretan:

- Prestazioaren egokitasuna: hautatutako pertsona proiekturako egokia den; lanak gainbegiratzea eta kontrolatzea; profesionalitatea eta itxura bezeroekiko harremanetan.
- Adjudikaziodun izanez gero, lizitatuak proiekturako hautatutako pertsona mantendu beharko du, bere proposamen teknikoaren arabera, jarduera espezifiko bakoitzerako finkatutako epean.
- Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da hautagaiak dagozkion tituluak eta ziurtagiriak badituela egiaztatzea, baita haren trebakuntza teknikoa egiaztatzea ere erreferentzien bitartez.
- UIZk, egoki iritziz gero, beste edozein agiri edo dokumentu eskatu ahal izango du, noiznahi (hau da, adjudikazioaren aurretik edo ondoren, hautagaia lanean hasi eta gero), aurretik jasotako agirien osagarri modura, enpresa adjudikaziodunak emandako datuak egiaztatzeko (enpresari berari buruzko datuak edo haren baliabideei buruzkoak).
- Datu horiek faltsutzeak kontratua suntsitzea ere eragin dezake.
- Aurretik aipatu den etengabeko

## PRECIO

La empresa deberá ofertar un precio/hora del proyecto (desglosado en precio neto + IVA), correspondiente a la categoría profesional exigida cada lote

La/s empresa/s adjudicataria/s de los lotes se someterá/n a evaluación continua, entendiéndose como criterios a evaluar los siguientes:

- Idoneidad de la prestación: adecuación de la persona asignada al proyecto a realizar, supervisión y control de los trabajos, profesionalidad en la relación y presencia ante los clientes.
- El licitador debe comprometerse, en caso de ser adjudicatario, a mantener la persona asignada al proyecto, según lo establecido en su propuesta técnica, y durante el periodo fijado en cada actividad específica.
- Es responsabilidad del adjudicatario verificar que dicha persona asignada posea las titulaciones y certificaciones que pueda acreditar así como el verificar con referencias su capacitación técnica.
- El CIM se reserva la facultad de solicitar, en cualquier momento, antes o después de la adjudicación y durante el curso de los trabajos, cualquier otro tipo de documento complementario, en orden a la comprobación de cuantos datos haya ofrecido la empresa adjudicataria, tanto respecto a la misma, como a los recursos de que disponga.
- La falsedad en los mismos podrá implicar la resolución del contrato.
- Un resultado negativo en la evaluación





**Udal Informatika Zentroa**  
**Centro Informático Municipal**

Txomin Agirre, 6

Tel. 943481800 - Faxe 943481805

20018 Donostia / San Sebastián

ebaluazioaren emaitza negatiboa izanez gero (curriculumak adierazitakoren eta eguneroko lanean erakutsitako gaitasunaren arteko alderaketatik ondorioztatua), adjudikazioa berrikusi eta, hala badagokio, eskaera/kontratua hutsaldu ahal izango da, edo adjudikaziodunari eskatu ahal izango zaio beste pertsona bat ipintzeko hasierako hautagaiaren ordean.

continua anteriormente mencionada, deducida del contraste entre lo reflejado en el curriculum y los conocimientos reales demostrados en la ejecución de los trabajos, podría en último término, provocar la revisión de la adjudicación y en su caso la rescisión del pedido/contrato, o la solicitud a la adjudicataria, de la sustitución de la persona asignada en un principio al proyecto.

Donostia, 2014ko azaroaren 5a  
Donostia / San Sebastián, a 5 de noviembre de 2014

**UIZ-KO KUDEATZAILEA**  
**LA GERENTE DEL CIM**



IFK/CIF Q2000553D  
6115n V 2013-01

